





EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUA



**Laneratze enpresentzako
kontratu erresebatuak
ezartzeko gida**

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea
Red de Economía Alternativa y Solidaria

Venezuela Plaza 1, 2. Ezk.-Ezk. • 48001 Bilbo
Tel.: 944 160 566 • Faxa: 944 156 319
reaseuskadi@reaseuskadi.net
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

Egileak: Santiago Lesmes Zabalegi
Leire Álvarez de Eulate Bada

Lege Zenbakia: BI-1816-2015
Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.
Imprimaketa: Gráficas Ingugóm, S.L.

EROSKETA PUBLIKO ARDURATSUA
Laneratze enpresentzako kontratu
erreserbatuak ezartzeko gida



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka.

Obra hau libre kopiatzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu>



Aurkibidea

1. Aurkezpena	5
2. Kontzeptuak argitzen: kontratu erreserbatua eta merkatuaren erreserba	6
3. Zein enpresa izan daiteke onuradun?	8
4. Nahitaezkoa al da kontratuak erreserbatzea laneratzeko enprekin eta enpleguko zentro bereziekin?	10
5. Auzi praktiko batzuk	11
6. Kontratisten Erregistroa eta Enpresa-sailkapena	14
Informazio gehiago izateko	16



1 Aurkezpena

Hemen aurkezten dugun gidaliburu honek, kontratuen erreserba ezartzean azal litezkeen zalantzak argitzea du helburu.

Gaur egun, enplegua eragile garrantzitsuenetako bat da gizarteratu ahal izateko. Hala ere, eta legeriak gero eta joera handiagoa badu ere kontratu publikoetan klausula sozialak sartzeko, gizartean baztertuta dauden edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen sektore publikoan lana aurkitzeko dituzten aukerak ez dira behar adinakoak.

Aldi berean, kontratazio publikoak oso zeregin garrantzitsua betetzen du ekonomian; guztira, administrazio publikoek BPGren %15 bideratzen dute horretara, eta, beraz, erakunde publiko batek kontratu bat adjudikatzen duen aldiro, eragin nabaria izaten ari da merkatuan eta ingurunean.

Kontratu-arloko egungo legeriak berariaz eta argi eta garbi onartu du kontratazio publikoa helburu sozialak lortzeko erabiltzeko aukera. Aski da honako hauek aipatzea: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/UE Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa; azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena; edo irailaren 9ko 31/2015 Legea, autoenplegu-arloko araudia aldatu eta gaurkotu, eta lan autonomia eta Ekonomia Soziala sustatzeko eta bultzatzeko neurriak ezartzen dituena.

Lege honek, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 5. Xedapen Gehigarria aldatu du. Xedapen hori kontratu erreserbatuei buruzkoa da, eta edozein administrazio publikori ematen dio baimena lizitazioan “parte hartzeko erreserba” egiteko, enplegu zentro berezientzat, laneratzeko enpresentzat eta babestutako enplegu programetarako. Kasu horietan, enpresa-mota horiek baizik ezin izango dira aurkeztu eta onartu, eta, horrenbestez, haien ezaugarriak, izaera arautua eta ondo frogatutako eta ezin eztabaidatuzko onura soziala onetsiko dira. 31/2015 Legea harago doa, eta erreserbako gutxieneko ehunekoak finkatzera behartzen ditu administrazio publikoak.

Hala, bada, ez dago aitzakiarik; Estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokiko administrazioek legearen edukiak ezarri behar dituzte, eta kontratazio publikoak benetako tresna politikoa izan behar du, gizarteko sektorerik ahulentzat enplegua sortzeko izan dezakeen indar gurtia garatzeko.

Gidaliburu hau, interesgarria suertatzea eta aipatutako helburua lortzeko lagungarria izatea nahiko genuke.



2

Kontzeptuak argitzen:

kontratu erreserbatua eta merkatuaren erreserba

Kontratu erreserbatua

Kontratu erreserbatua lege-figura bereziaren ondorioz, kontratu publiko baten lizitazioan, enpresa-ekimen jakin batzuek baizik ezin dute parte hartu, eta, beraz, adjudikazioa jaso. Dagokigun kasuan, hauek baizik ezin izango dute parte hartu eta kontratu erreserbatuen adjudikazioa jaso: enpleguko zentro bereziak, 44/2007 Legean araututako laneratzeko enpresak eta babestutako enpleguko programak, betiere, haien enplegatuen %30 ahalmen urrikoak badira edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan badaude.

Merkatuaren erreserba

Merkatuaren erreserba ez da definizio juridiko bat berez; merkatuaren erreserba aipatzen dugu, kontratu erreserbatua modu estrategikoan, kuantifikatua eta planifikatua erabiltzen denean. Hau da, administrazio publiko batek edo administrazio publiko guztiek erabakitzen dutenean beren kontratu guztien ehuneko bat, edo kontratu publikoak adjudikatzeko aurrekontu osoaren ehuneko bat kontratu erreserbatuen bidez adjudikatuko dela, laneratzeko enpresentzat eta enpleguko zentro berezientzat merkatu babestua sortzeko, era horretan, iraun dezaten edota handitu ahal izan daitezten.

Kontratu erreserbatuen arloko legeak

Europar Batasuna:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/UE Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa, 20. artikulua.

Estatu espainiarra:

- Irailaren 9ko 31/2005 Legea, autoenplegu-arloko araua aldatu eta gaurkotu, eta lan autonomia eta ekonomia soziala sustatu eta bultzatzeko neurriak ezartzen dituena, 4. artikulua.
- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publiko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duena, 5. xedapen gehigarria.

Euskadi:

- Ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpena, gizarte- eta ingurumen-irizpideak hartzeko eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren beste politika publiko batzuk sartzeko Gobernu Kontseiluak egindako akordioari buruzkoa (EHAA, 116. zk., 2008ko ekainaren 19koa), IV. atala.



Zer esaten du legeriak?

Kontratu publikoen legeriak berak babesten ditu kontratu erreserbatuak. Hain zuzen, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriak. Dekretu horren bidez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 5. xedapen gehigarria irailaren 9ko 31/2015 Legearen 4. artikulua aldatu du. Azken lege horren bidez, autoenplegu-arloko araua aldatu eta gaurkotu, eta neurriak ezartzen dira lan autonomia eta ekonomia soziala sustatu eta bultzatzeko.

Bosgarren xedapen gehigarria. Kontratu erreserbatuak.

1. Ministroen Kontseiluak hartutako Akordioaren bidez, edo autonomia-erkidegoen eta tokiko erakundeen esparruan eskumena duen organoaren bidez, kontratu jakin batzuk edo haien sortak adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidean, erreserbako gutxieneko ehunekoak finkatuko dira, enpleguko zentro berezientzat eta abenduaren 13ko 44/2007 Legeak –laneratzeko enpresen araudia arautzen duenak– araututako laneratzeko enpresentzat, betiere, araudi horretan horrelakotzat hartzeko finkatuta dauden baldintzak betetzen badituzte; edo erreserbako gutxieneko ehunekoa finkatuko da, babestutako enplegu-programen esparruan kontratu erreserbatuak egiteko, betiere, gutxienez enpleguko zentro berezi, laneratzeko enpresa edo programetako langileen %30 ahalmen urrikoak edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak badira.

Ministroen Kontseiluak hartutako akordio horretan edo autonomia-erkidegoen eta tokiko erakundeen esparruan eskumena duen organoaren bidez, gutxieneko baldintzak finkatuko dira, aurreko paragrafoan ezarritakoa beteko dela bermatzeko.

2. Lizitazioaren iragarkian, xedapen hau aipatu beharko da.



3 Zein enpresa izan daiteke onuradun?

Aurreko paragrafoan azpimarratu den bezala, bi enpresa-mota hauek baizik ezin dira onuradun izan: laneratzeko enpresak eta enpleguko zentro bereziak.

Biak, berezko kategoria juridikoa, arautzeko legeria berezia, eta aurrez finkatutako eskakizunak eta ezaugarriak dituzte, bai eta inskribatzeko nahitaezko erregistroak ere.

Laneratzeko enpresak

Figura juridiko berezia da, eta laneratzeko enpresen erregimena arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legeak onartzen du.

Gizarteratze Enpresa izaera izango du, erakunde publikoengatik behar bezala kalifikaturik dagoen eta, enplegu arruntera igarotze legez, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonen integrazioa eta prestakuntza helburu duen produktu eta zerbitzuen salmentako edozein jarduera ekonomiko burutzen duen eta legalki eratua dagoen merkatal sozietatea edo kooperatiba sozietateak.

Laneratzeko enpresen ezaugarriak:

- Bere objektu sozialaren xede nagusia, lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen gizarteratze eta laneratzeko da.
- Irabazi asmorik gabeko entitate bat edo gehiago izango dira hauen sustatzaileak (zuzenbide publikokoak ere barneratuz). Entitate sustatzaileen objektu sozialak, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak kontutan hartu behar ditu.
- Gutxienez langileen %30a eta gehienez %50a bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonak izan behar dira.
- Laneratzeko prozesuan dauden pertsonak, laneratzeko enpresan, gutxienez 6 hilabete eta gehienez 3 urte gera daitezke.
- Ekitaldi bakoitzean lortutako mozkinak, euren egitura produktiboen hobekuntza edo zabalpena edota gizarteratze eta laneratzekoekin lotutako jardueren sustapenera bideratzen dira, ez da inoiz mozkinen banaketarik egingo.

Enplegu-Zentro Bereziak ondasunak ekoizteaz edo zerbitzuak egiteaz gain, ahalmen urriko pertsonak laneratzeko helburua dute, eta, horretarako, zerbitzuak dituzte, langileek hobeto eta sakonago egokitzeko behar dituzten egokitze pertsonal eta sozialerako.

Zentro hauek, kalifikazio hori jasotzeko eta dagokien erregistroan horrela inskribatuta egoteko, haien langile-zerrendan, gutxienez langileen %70 ahalmen urriko pertsonak izango dira, eta haien ahalmen urritasuna %33 edo gehiagokoa izango da. Enplegu Zentro Berezien Araudia onesten duen abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuak arautzen ditu.

Bestalde, legeriak aukera ematen du erreserbako gutxienerako ehunekoa finkatzeko, babestutako enplegu-programen esparruan kontratu erreserbatuak egiteko, betiere, gutxienez programako langileen %30 ahalmen urrikoak edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak badira.



4 Nahitaezkoa al da kontratuak

erreserbatzea laneratzeko enpresekin eta enpleguko zentro bereziekin?

Bai, nahitaezkoa da. Salbuespenik gabe, administrazio publiko guztiek beren kontratuen zati bat erreserbatu behar dute laneratzeko enpresentzat edo enpleguko zentro berezientzat.

31/2015 Legeak honela dio:

*Ministroen Kontseiluak hartutako Akordioaren bidez, edo autonomia-erkidegoen eta tokiko erakundeen esparruan eskumena duen organoaren bidez, kontratu jakin batzuk edo haien sortak adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidean, erreserbako **gutxieneko ehunekoak finkatuko dira**, enpleguko zentro berezientzat eta laneratzeko enpresentzat.*

Ministroen Kontseiluak hartutako akordio horretan edo autonomia-erkidegoen eta tokiko erakundeen esparruan eskumena duen organoaren bidez, gutxieneko baldintzak finkatuko dira, aurreko paragrafoan ezarritakoa beteko dela bermatzeko.

Horri jarraiki, toki-erakunde guztiek –udalek, aldundiek edota Eusko Jaurlaritzak berak– nahitaez finkatu behar dute beren kontratu publiko guztien gutxieneko bat, laneratzeko enpresentzat eta enplegu-zentro berezientzat uzteko, kontratu publikoen araudiak horrela ezartzen duelako. Gainera, gutxieneko baldintzak finkatu behar dira hori beteko dela bermatzeko.

Hortaz, 31/2015 Legea indarrean sartzean, nabarmen aldatu da kontratu erreserbatuen egoera:

- Edozein administrazio publikori eskatu ahal zaio eta eskatu behar zaio Legeak agindutakoa betetzeko, eta kontratu erreserbatuen bidez adjudikatuko diren kontratuen gutxienekoa finkatzeko.
- Gainera, eskatu ahal izango zaio hori bete dadin bermatzeko, adibidez, kontratazioko organo bakoitzari zenbateko edo ehuneko jakin batzuk esleituz, egiaztatzaileak ezarriz, kontratu erreserbatuen bidez adjudikatutako zenbatekoak garden eta jendaurrean zenbatuz, edota jarraipen-mahaiaik eratuz laneratzeko enpresen eta enpleguko zentro berezien arloko ordezkariekin.

5 Auzi praktiko batzuk

Edozein kontratu-xederi eta jarduera-sektoreri ezarri ahal zaio kontratu erresebatua?

Bai, edozeini. Ez dago inolako mugarik zentzu horretan.

Hala ere, bereziki gomendatzen da behar bezala erkatzea kontratuaren xedea eta laneratzeko enpresak edo enpleguko zentro bereziak, hain zuzen, argi jakiteko jarduera-sektore horretan aritzen den eta kontratua behar bezala egiteko ahalmena duen enpresa edo zentrorik dagoen. Horrelakorik ez badago, ez da arrazoizkoa, ez gomendagarria kontratu hori erresebatu gisa kalifikatzea.

Edozein kontratu-mota eta adjudikazio-prozedurari ezarri ahal zaio kontratu erresebatua?

Bai, ez dago inolako mugarik. Honelakoak kalifika daitezke erresebatu gisa: obra-kontratuak, obra publikoen kontzесиokoak, zerbitzukoak, zerbitzu publikoak kudeatzekoak, hornidurakoak, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakoak, eta kontratu administratibo bereziak.

Era berean, prozedura irekiak, murrizak edo negoziatuak, kontatu txikiak edota esparru-akordioak erresebatu gisa kalifika daitezke.

Mugarik ba al da lizitazioaren zenbatekoan?

Bat ere ez. Berdin kalifika daiteke erresebatu gisa 800 euroko kontratua eta 80 milioi eurokoa.

Nola egituratzen da praktikan kontratu erresebatua klausulen pleguan?

Beste edozein lizitazio bezala. Ez du berezitasunik; izapidetu, argitaratu eta adjudikatu egiten da, beste edozein kontraturekin egiten den bezala. Hau da, prozedura irekiz adjudika daiteke obra-kontratu erresebatu bat, edo hornidurako kontratu txiki erresebatu bat.

Berezitasun bakarra da parte hartzeko eskubidea mugatzen duela, laneratzeko enpresak eta enpleguko zentro bereziak baizik ezin baitira aurkeztu edo onartu. Eskakizun hori gaitasun-baldintza bezala adierazi ahal izango da pleguetan, eta sailkapen hori edo inskripzioa dagozkien erregistroetan egiaztatu ahal izango da.

Edozein laneratze-
enpresa edo
enpleguko zentro
berezi aurkez
daiteke kontratu
erreserbatu
guztietara?

Ez. Erreserbatu gisa kalifikatzeak soilik esan nahi du bi enpresa-mota horiek lizitaziorako onar daitezkeela, baina kontratu erreserbatua egoteak ez du esan nahi laneratzeko enpresa eta enpleguko zentro berezi guztiak kontratu guztietara aurkeztu daitezkeenik edo adjudikazioa beti jasoko dutenik.

Kontratu bat erreserbatu gisa kalifikatzeak ez ditu inola ere baztertzen lizitazio baterako onartua izateko bete behar diren gainerako eskakizunak eta baldintzak, esate baterako, kaudimen teknikoa, ekonomikoa edo profesio-nala, jarduteko ahalmena, kontratistaren sailkapena edo kontratatzekeo debekuetan sartuta ez egotea.

Hortaz, kontratu bat erreserbatu gisa kalifikatuz gero, laneratzeko enpresek eta enpleguko zentro bereziek, hori direla egiaztatzeaz gain, pleguek finkatzen dituzten baldintza bereziak betetzen dituztela justifikatu beharko dute.

Ba al da kontuan
izan beharreko
lege-eskakizunik?

Bai, ezinbestekoa da lizitazio-iragarkian argi jakinaraztea kontratua erreserbatua dela. Horrela ezartzen dute Estatu-tuko eta Autonomia Erkidegoko araudietako artikuluek.

Zer esan nahi du
aukera dagoela
laneratzeko
enpresei sortak
erreserbatzeko?

Horixe da, izan ere, irailaren 9ko 31/2015 Legearen bidez aldatutako 5. xedapen gehigarrian sartutako berritasunik interesgarrienetako bat.

Hain zuzen, honela dio: “... *kontratu jakin batzuk edo haien sortak adjudikatzekeo prozeduretan parte hartzekeo eskubidean **erreserbako gutxienekeo ehunekoak finkatuko dira enpleguko zentro berezientzat eta laneratzeko enpresentzat...**”.*

Ildo horretan, gogora ekarri behar dugu erkidegoko zuzentarau berrien arabera (kontratu publikoen egungo araudian ere jasota dago), kontratua sortatan zatitu daitekeela, bereizita erabiltzeko edo ustiatzeko modukoak badira eta unitate funtzionala eratzen badute, eta, betiere, eragiketa hori proportzionala bada duen helburuarekin. Era berean, sorten kopurua lizitatzailere batek bere gain har ditzakeenetara mugatzeko aukera aipatzen du. Hortaz, litekeena da komenigarria ez izatea kontratu publiko bat erreserbatu gisa sailkatzea –konplexua delako, edo bere balioagatik, edota

kaudimen- edo sailkapen-arloko baldintzengatik-, edo laneratzeko enpresa gaiturik ez egotea kontratu hori osorik egin ahal izateko. Hala ere, kontratuak sortetan zatitu, eta sorta horietako bat edo batzuk erreserbatu gisa sailkatu ahal izango dira, hartara, lizitazioan laneratzeko enpresek eta enpleguko zentro bereziek baizik parte har ez dezaten.

Eman dezagun, adibidez, hondakinak biltzeko kontratu bat; ezar dezakegu sorta bat tamaina handiko hondakinak gaika biltzeko dela, eta erreserbatu gisa sailka dezakegu. Edo obra publikoko kontratu batean, garbitzeko sorta edo pladurra jartzekoa erreserbatu gisa sailka dezakegu. Edota publizitateko kontratu batean, sorta bat mezularitza edo kopisteriakoa izan liteke, eta laneratzeko enpresentzat erreserbatu gisa sailka genezake.

Kontratu erreserbatu gisa sailka daiteke erreserbarik gabe egin izan den zerbitzu bat, berriz lizitazioan aurkeztean?

Lehenik eta behin, kontratuaren indarraldia eta luzapenak hartu behar ditugu kontuan, administrazio publikoak zerbitzu hori lizitazioan berriz atera dezakeen jakiteko.

Hori egiaztatu ondoren, litekeena da erreserbatu gisa sailkatu ahal izatea, baina, aurrena, hobe da ondo aztertzea hori komenigarria den. Horixe gertatzen da langileak subrogatzeko klausula duten kontratuetan. Laneratzeko enpresen eta enpleguko zentro berezien helburua enplegua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegua ematea denez, ez luke batere zentzurik izango subrogazioa dakarren kontratu bat erreserbatu gisa sailkatzeak, mota horretako enpresek ezin izango baitituzte gizartean baztertuta dauden edo ahalmen urrikoak diren pertsonak kontratatu.

Hala, beraz, kontratu erreserbatuak kasu hauetan erabiltzea gomendatzen dugu:

- Kontratu edo zerbitzu berrietan.
- Epe laburrean edo ertainean eskulan gehiago kontratatu beharko duten kontratuetan edo zerbitzuetan.
- Nolanahi ere, kontratua laneratzeko enpresa edo enpleguko zentro berezi batek egin duenean.



6

Kontratisten Erregistroa eta enpresa-sailkapena

Kontratisten Erregistro Ofizialari dagokionez, Euskadiko Kontratazio Publikoko web atarian agertzen den informazioaren arabera:

- Kontratisten Erregistroan izena ematea borondatezko kontua da.
- Hari esker, Kontratisten Erregistroan inskribatuta dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan lizitazio publikoetara maiz aurkezten diren enpresek ez dituzte behin eta berriz aurkeztu beharko kontratazioko prozeduraren arauak eskatutako agiriak, eta, beraz, izapideak arinago egingo dira.
- Sei hilabeterako balio du.

Nahitaezkoa al da laneratzeko zentroak eta enpleguko zentro bereziak Ogasun eta Finantza Saileko Kontratisten Erregistroan inskribatuta egotea, kontratuen erreserbarako kontratatuak izateko?

Aipatutako web atariaren arabera, Kontratisten Erregistroan izena ematea borondatezko kontua da; ezin zaie nahitaez eskatu enpresei, eta, era berean, haren bidez, ezin da abantailarik lortu, izan litezkeen lizitatzailen arteko berdintasun eta bereizkeria ezaren printzipioak urratuz.

Hala ere, hurrengo paradoxa agertzen da: Euskal Autonomia Erkidegoan, gizarte- eta ingurumen-arloko irizpideak eta Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren beste politika publiko batzuk sartzeko Gobernu Kontseiluak onetsitako akordioari buruzko ekainaren 2ko 6/2008 Ebazpenak honelaxe dio IV. ataleko 4. paragrafoan: *“erreserba jasotzen duten enpresek ezar daitekeen legerian finkatutako baldintzak bete beharko dituzte, eta beren helburuak edo jarduerak zerikusi zuzena eduki beharko du kontratuak duen helburuarekin, beren arau, estatutu edo sortze-arauei jarraiki.*

Aipatutako erreserba betez kontratua jaso nahi duten erakundeak behar bezala inskribatuta egongo dira Ogasun eta Administrazio Publikoaren Sailak 1998ko otsailaren 4an emandako Aginduak araututako Kontratisten Erregistroan, eta, dagokion eran, abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuan jasotako Enpleguko Zentro Berezien Erregistroan, edo abenduaren 26ko 305/2000 Dekretuak araututako Laneratzeko Enpresen Erregistroan.”

Enpresa-sailkapena

Enpresa-sailkapenaren helburua da enpresaren kaudimena aurrez egiaztatzea.

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak berariaz jasotako kasuetan eskatzen da sailkapena:

- a) 500.000 euroko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten obra-kontratuetan, ezinbesteko baldintza izango da enpresaburua behar bezala sailkatuta egotea administrazio publikoetako obra-kontratista gisa. Kontratu horietan, enpresaburua kontratuak duen helburuaren arabera dagokion taldean edo azpitaldean sailkatuta egoteak –kontraturako eskatutako kategoria berarekin edo goragoko batekin– egiaztatuko du kontratatzeko kaudimena duela.
- b) Zerbitzu-kontratuetan, ez da eskatu behar izango enpresaburuaren sailkapena.
- c) Gainerako kontratu-motetan sailkapena ez da eskatu, ez ezarri beharko.



Laneratzeko enpresei buruz

Gizatea – Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea

- www.gizatea.net

Faedei - Federación de Asociaciones Empresariales de Empresas de Inserción

- www.faedei.org

Kontratazio publiko, enpresa-sailkapen eta kontratisten erregistroari buruz

Euskadiko Kontratazio Publikoaren Ataria

- www.contratacion.euskadi.eus <https://apps.euskadi.eus/w32-home/es>

Kontratazio publikoa Estatu espainiarrean

- www.contrataciondelestado.es

Kontratu erreserbatuez gain, gizarteratze eta laneratzearekin erlazionaturik dauden gizarte-klausulak barneratzeko beste aukera batzuk ere badaude, baita Kontratazio Publiko Sozialki Arduratsuaren esparruan beste politikak garatzeko aukerak ere.



Gizarte-klausulak, gizarteratzearen eta laneratzearen zerbitzurako tresnak (2010)

- http://www.economiasolidaria.org/clausulas_sociales_euskadi



Kontratazio Publiko Sozialki Arduratsuaren Gida (2014)

- http://www.economiasolidaria.org/documentos/guia_CPSR